

BERRIGARA

14 zenbakia

Jardun elkarteak, Bergara

1991, martxoak 22

Inguruko euskararen aldeko Elkarteak



AED ELKARTEA k eta **ARRASATE** ek aurkezturik:
PRESS
Tapia eta Leturia
RIP
Minxoriak

**Astetik astera
hutsetik ehunera**

Martxoak 22, Ostirala
Gaueko 10etan, Arrasateko Kiroldegian

GISASOLA BURDINDEGIA

" Erratzu "

Pedro Deuna 8,

Tfnoa: 76 27 70

BERGARA




ELKAR

Fotokopiak
Enkuadernazioa
Jendearentzako faxa
Plastifikazioa
Planoen kopiak.

Harruriaga 1, Behea

Tfnoa: 76 58 16


BERGARA



**ETXE-
-AUNDI**

Negoio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
ONATI



POL-POL TABERNA

Tfoa: 76 48 51

DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51


ANDIZU

ERAIKUNTZA
MATERIALEN
BILTEGIA

Errotuloak, igeltseritza
eta pintura lanak.

TELLERIKO LANA Pol/Ind. San Juan
C-1-B Pab. Tfnoa: 76 01 41
Faxa: 76 00 58 BERGARA

AE ELKORO ANTENAK



. TB Satelite bidez
. Telebanaketa

ARRASATE

Tfnoa: 79 18 86

KIÑU

ARGAZKINDENDA

ARGAZKILARIAK

*Martxotik aurrera
Barrenkale 35ean*

Tfnoa: 76 58 05
BERGARA

BERRIGARA**Argitaratzailea:**

Jardun Elkarte

Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara

Tfnoa: 760397

Laguntzailea: Bergarako Udala**Zuzendaria:**

Miguel Angel Elkorobereibar

Erredakzioa:

Jon Andueza. Eneko Azkarate

Maketazioa:

Edure Arenaza. Jon Andueza

Publizitatea eta harpidetzak:

Ignazio Irigoien. Edure Arenaza

Tfnoa: 760397

Erredakzio-kontseilua: Jose Angel

Mikeo, Estepan Plazaola eta Juan

Martin Elexpuru

Kolaboratzaileak: J. Oregi, A.

Urzelai, Maripi Laskurain, Olaia Inza,

Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel

Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel

Elkorobereibar, Josune Iñarra eta

Xabier Aranburu, Aitziber Aretxaga

eta Ainhoa Bikufia

Argazki laborategia: I. G. Landa, A.

Gallastegi, B. Cantero, M. Leturia, K.

Retolaza, J.A. Eguren, J.I. Millan, J.

Aguayo, R. Vicente, J. Tabares, J. A.

Jauregi eta Kifu

Komikia eta merrazkiak Josu Okina

eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Ofati)

Banaketa arduraduna:

Txantxangorri Taklea

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 2.000 ale

Lege gordailua: SS 50/91


BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

4 eta 5: Jarduneko Bazkideen Batzar Orokorra



6 eta 7: Arrasate Press eta ATB, herri komunika- bideetan eredu

8 eta 9: Inguruko euskararen aldeko Elkarteak



10: Atrebentzia ezpada...

11: Umorea

BERROYA, E. A.


INPRENTA

OFFSET - TIPOGRAFIA
ENKUADERNAZIOA

Komenio 2

Tfnoa: 76 00 01

BERGARA



Zer da JARDUN Elkarte?

Galdetuko dio oraindik batek baino gehiagok bere buruari. Eta ulertzekoa da galdera hau egitea, jende askok *Jardun* ez, baina Elkarte honek argitaratzen duen *Berrigara* aldizkaria ezagutzen bait du, biak nahastuz.

Hamar hilabete pasatu dira *Jardun* Elkarte sortzeko asmoa herritarrei aurkeztu zitzaientetik eta maiatzaren 17an esandakoak poliki-poliki egiten ere hasiak gara. Egin berri dugun Bazkideen Batzar Orokorrean aurkeztu ziren orain arte egindakoak eta zeintzu diren aurtengo urteari begira egiteko ditugun asmoak.

Hamar hilabete hauetan hiru lan eduki ditugu Elkartearen egituraketan:

- Estatutuak idatzi
- Lantaldeak sortu
- Bazkideak egin

Batez ere *Jardun* zer den eta zer izan beharko litzatekeen zehazten eman genituen hasierako hilabeteak, azkenik estatutuak idatziak gelditu ziren arte. Bertan adierazia

dago *Jardunek* zer izan nahi duen. Lau helburukin jasotako etxea dugu *Jardun*: Euskal giroa **berpiztu**, kultur ekin-tza euskaldunak **bultzatu**, euskaltzale guztien indarrak **batu** eta euskararen erabilera **sendotu**. Helburu hauek lortu nahian bidea ere markatu dugu: "*antolatutako ekintza guztietan eta, batez ere, eguneroko bizitzan eragina duten zerbitzu, esparru eta ihardueratan euskararen presentzia ziurtatu eta sendotzen aritu*". Bide hau nola egin ere bertan ipini dugu: "*proposamenak eginez, laguntzak eskainiz eta hutsu-neak tapatuz*".



Hau aurrera eramango duen indarra euskarak, berak, ematen digun batasuna da. "*Euskarak batzen gaitu*"



Jardunek joan den astean Bazkideen Bileran Orokorra egin zuen

diogu, gauza guztien gainerik elkarlana beharrezkoa bait da euskaraz bizi gaitezen behar den giroa eta kondizinoak sortu nahi badira.

Jokabide, ekintza, jarrera bateratuak ditugun neurrian hasiko gara ikusten zela, eguneroko bizitzan, euskaldun izateko kondizinoak sortzen ditugun. Guzti hau aurrera eramateko sortu da *Jardun*. Pentsakera, adin, lanbide, sexu eta abarrez gain, euskararenganako duen maitasunagatak, edozeinek aurkitu behar du *Jardun*en lana egiteko lekua.

Dagoeneko, alor batzuei erlanu dira, lantaldeena esate baterako, bi lantalde, Komunikabideena eta Kultur ekin-

tzetakoa, sortuta daudelarik. Bere emaitzak ere ikusten ditugu: *Berrigara*, hitzaldiak...

Eta zein antolaketa modu hartu dugu ba lana burutzeko? Antolaketaren oinarria Bazkideak dira, sozioak. Momentu honetan 350 inguru gara, baina zenbat eta gehiago hobeto, orduan eta indar haundiagoa izango dugu eta gauza gehiago egiteko aukera edukiko dugu. Zu zeu, oraindik ez bazara sozio, oso erraz daukazu, dei bat egitea besterik ez da eta.

Badakizu, antolaketa eta organizazio honen helburua zure ahoan euskara ziurtatzea da, bakoitza bait gara hizkuntza honen jabe.

ARTISTAK
Erakusketa
Nahikari

LETE TOLDOAK
Kataide Pol/Ind. 14. Pab.
Tfnoa: 79 23 83 ARRASATE
BERGARA Tfnoa: 76 12 24
IURRETA Tfnoa: (94) 6 81 76 19

TOKI-EDER
Taberna
Pintxoak eta eguneko bazkariak
Artzamendi Tfnoa: 765184 BERGARA

MAKAILO ETXEA
Makailo kazuelak gertatzen ditugu
Ibargarai 15

BRIKOLAIA AUTOMOZIOA
Turismoak, kamioiak, etab.
Bolu, Tfnoa: 764404 BERGARA

Aldoka Maldoka
Taberna
KRUZ GALLASTEGI BERGARA

Jardunen lantaldeak abixadan

Bi lantalde ditu martxan Jardunek (Komunikabideena eta kultur ekintzetakoa) eta beste bat laister sortzekoa (gazteena). Denboraz beste batzuk ere sortuko dira.



✓ Komunikabideak

Eskuetan duzuen astekari hauxe kaleratzea da komunikabideetako lantaldearen zereginik nagusia. Alboko artikuluan euren agurra jasoko duzue, ez gara hemen gehiago luzatuko.

✓ Kultur ekintzak

Orain dela hil pare bat sortutako taldea dugu hau eta bere helburua herritarrei kultur eskaintza erakargarri eta aberatsa egitea da. Horretarako, aldi bakoitzean, jakin-minik haundiena sortuko duten hitzaldi, mahai-inguru,

ikastaro, jaialdi, eta antolatuko ditu. Dagoeneko, egin zuen bere estreinaldia golko gerrari buruzko mahai-inguru batekin, eta aurrera begira ere sorpresa atseginak prestatzen dihardu. Gaurtik bertatik aipatu daitekeena maiatzaren 10erako antolatatu den Xabier Lete eta Antton Valverderen kantaldia.

✓ Gazteen lantaldea

Interes berezia du Jardu-

nek talde hau lehenbailehen antolatzeko, izan ere, gazte pila bat baitira elkarte lan egiteko prest agertu direnak. Oraindik taldea eratzeke badago ere, laister martxan izatea espero dugu.


✓ Lantalde berriak

Sortuta edo laister sortzeko dauden lantalde horiek izan arren, honek ez du esan nahi hemendik lasterrera beste edozein lantalde (kiroletakoa, lan-mundukoa, emakumeena...) sor ez daitezkeenik, 4-5 lagun elkartu eta lan pixkat egiteko prest egotea nahikoa bait da lantaldea sortzeko.

Eta lantaldeetan sartu gabe, noiz-behinkako lanean laguntza eskaintzea nahiago duenak ere badu zereginik: idazkiak makinaz pasa, sobreak bete, propaganda banatu... norberak gustokoen duena.

Berrigaran zu zara berri

Halaxe da, bai, zu zara geure berririk iraunkorrena, asteroko irakurle leiala. Eta horrela jarrai dezagun nahi genuke, elkarrekin astez-aste aurrera goazelako, elkarrekin euskaraz oso ondo konpontzen garelako. Saiatu izan gara benetan gai interesgarriak zeuri eskaintzen, berri freskoak era irakurterrez batetan ateratzen... eta begira, ia konturatu gabe, baina nahikoa lan egin ondoren, 14. zenbakia zeure eskuetan jarri dizugu ostiralero bezala. Baina adi! aurki errebista eraberritua aurkituko duzu zure buzoian, tirada haundiagoa (2.500 ale) eta lau orrialde oraingoari gehituz (20 orrialde), eta sail berriak, eta... dena zuretzat, irakurle, zu zarelako berri denon *Berrigaran.*



Gaspar

JATETXEA, TXOKOLATEGIA
SELF SERVICE-a

Barrenkale 31, Tfnoa: 76 20 02

ANTIA HARATEGIA
URDATEGIA

Txahal, idi, txerri
bildots, untxi
baserriko oilaskoak

Matxategi Tfnoa: 76 15 09 BERGARA

AUTOPULLMANS ARABA
Autobusak


Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 07

Mondrauetarrak, herri-komunikabideetan eredu

*Gure bailarako herri-komunikabideak
aztertzerakoan, Arrasate Press eta Arrasate
Telebista jo ditugu eredutzat.*

*Hona hemen bi fenomeno txalagarri hauen
zuzendaria den Joxe Aranzabalek proiektu hauei
buruz kontatutakoak.*



Joxe Aranzabal, Arrasate Press eta ATB komunikabideen zuzendaria

Euskara helburu

Informazio mailan hutsune galanta somatzen genion Arrasateri; orduan hutsune hori betetzera joan ginen, eta euskaraz bete gainera.

Baina ez genuen aldizkari edo telebista bat sortu euskarari buruz hitzegiteko soilik. Hori urrundu ginen, eta denboraren poderioz zerbaitek apartatu badugu, horixe izan dela uste dut: euskaraz jardun edozein gairi buruz. Horrela euskara prestijiatu nahi izan dugu.

Herriko albisteak

Hasieran jende asko kezkatu azaldu zen, Arrasatek astero errebista bat kaleratzeko beste informazio emango ote zuen.

Guk ez genuen hori uste. Gurea bezalako herri batean gauza pila bat gertatzen da, gauza asko eta asko, baina gero ez da ohizko komunikabideetan (egunkarietan, adibidez) guztia ateratzen. Hor zegoen erroka, informazio guzti hori jasotzen asmatzea, gero herri-

tarrei emateko.

Jendeari eman, eta horren bidez, nolabait jende hori integratu. Azken urteetan herri hau ikaragarri hasi da, pertsona asko eta asko ezezagun egiten zaizkigu, ez dakigu zertan diharduen aldamenekoak, zer industria mota daukagun... errealtatea hor dago, baina ez dugu horren berri jasotzen.

Orduan, informazio hori jaso, banatu; eta horrek integratzen dinamika sortzen du. Orain badakigu besteak zertan ari diren, eta besteek ere bada-kite zertan ari garen gu. Horrek erraztu egiten du gure arteko komunikazioa.

Kolaboratzaileak!

Kolaboratzaileak oso inportanteak dira. Lau pertsona lanean ibilita, zaila litzateke astekari edo telebista osatzea.

Kolaboratzaile sareak, gainera, aberastu, jantzi egiten du produktua. Bakoitza mundu bat da, ikuspegi eta hizkuntza aldetik; eta zenbat eta sare zabalagoa lortu, erakargarriagoa bihurtzen da produktua.

Guk, alde horretatik, zorte oso ona izan dugu. Neurri batean, gainera, eskola bat sortu dugu herrian. Bai Arrasate Press eta bai telebistatik jende pilo pasatu da. Orduan, bai idatzi eta bai hitzegiteko orduan plaza publiko bihurtu gara. Horrek bere emaitzak emango ditu denborarekin, euskaraz polito jardun eta idazteko gai izango den Arrasatearren kopurua igo egingo delako.

Beste modu batera esanda, harrobiaren funtzioa betetzen ari gara. Batzuk marrazkiak bidaltzen dituzte, edo argazkiak, beste lagun batzuk musika saioak burutzen dituzte, beste batzuk poemak idatzi...

Beraz, kolaboratzaileen-tzat plataforma bat gara, eta eurak ezinbestekoak dira plataforma hau aurrera ateratzeko.

Sekretua hurbiltasuna

Seguraski, hurbiltasuna da Arrasaten sortu ditugun komunikabideen arrakastaren oinarria.

ATBk, adibidez, ez ditu inoiz ETBk dituen baliabide eta bitartekoak lortuko. Baina hurbileko albisteak ematen di-

tugu, eta hor irabazi dezakegu gure audientzia. Ezin dugu medioetan konpetitu, baina bai gure gaien interesean.

Gaur egun, munduko edozein bazterretan gertatzen dena berehala jakin dezakegu. Hori ona da, baina neurri batean apurtu egiten ditu herritarren arteko lotura asko eta asko. Kuadrilak banatu egiten dira, harremanak hoztu... eta jendea horretaz konturatzen denean hurbileko informazioa eskuratzen dion komunikabidea izugarri eskertzen du.

Sekretu moduan ere, nik laburtasuna eta barietatea azpimarratuko nituzke. Euskararen inguruan jo ta ke txapa ematen ibili beharrean, testu laburrak eta edozein gairi buruzkoak eskaintzen ditugu.

Profesionalak egiten

Kazetari edo kamaraman ikasketak bukatu dituzten gazteentzat plataforma onak sortu ditugu. Batetik, ez da medio handi batera joatea bezain traumatikoa. Norbere herrian hasten dira lanean, lagunez inguratuta; esparruak ez ditu itotzen, eta lasaiago ekiten




LARRAÑAGA

AUTOGIDARIEN ESKOLA

Artetale 22

Tfnoa: 76 16 63

BERGARA



Arrasate Presseko langileak, eguneroko lanean murgilduta

diote eguneroko praktikari.

Gauza asko beraien ingurune naturalean ikasiko dituzte, eta gero, saltua ematen dutenean bagaje hobea daramate, entrenatuta doazelako.

Interesari eustea

Hasieran, berehala pizten da jendearen interesa, nobedadea zarelako. Baina gero indarra galtzen da. Orduan, hor etortzen zaio erronka lan-taldeari, nola arraio lortu herritarren interesari eustea: produktua itxura hobetu, sail edo programa berriak asmatu, lehiaketa geroz eta beroagoak... ahalik eta indar-sozial gehienekin konektatzen saiatu, herritar guztiek orrialde batzuetan behintzat gustoko zerbait aurkitu dezaten.

Publizitatea euskarri

Dagoeneko arrasatear gehienek ulertu dute produktu hauek etxeraino dohain helzen bazaizkie publizitateari esker dela.

Gainera, ez da inoiz hainbeste publizitate euskara hu-

tsean egin, prentsa idatzian behintzat. Euskaldunak izan edo ez, komertzianta ugari erakarri ditugu. Hasieran entzungor egiten zuten, konfidantza faltagatik edo. Gaur egun, berriz, eurek deitzen dute. Badakite gure astekariako moduloak inon baino merkeagoak direla, eta 7.000 ale banatzen dira ostiralero; hori ikusita, izugarritzko girotxoa sortu da dendari eta Elkarteetan.

Arrasaten, gainera, zorte handia izan dugu; iaz, astekarian 20 milioi pzta.tik gora ingresatu genituen publizitatean. Daukagun gastua hori baino haundiagoa izanda ere, nola demontres lortu behar genuen dirutza hori?

ATBren kasua zertxobait ezberdina da. Prozesu guztia astekarian baino konplexuagoa eta garestiagoa izateaz gain, nolabaitesateko Arrasate Pressekek berak kompetentzia egiten dio. Hau da, merkatu berdina dituzte biek, eta aukerakerakoan anuntzianteak nahiago izaten du astekaria, publizitatearen kostua txikiagoa delako telebistan baino.

Astekaria, 0tik 100era

Ba bai, ostiral honetan kaleratu dugu 100. zenbakia. Tira... egin dugu gure bidea! Batzuk joan egin dira, beste batzuk etorri... Gauza asko ikasi ditugu bide honetan; batzutan erraz ikasi, eta beste batzutan zertxobait sufrituz... lan ederra egin dugu guztion artean. Giro berezia sortu dugu, beharra ere bai. Ostiraletan jendea beti egoten da zain, eta guretzako hori da saririk onena.

Beste gauza askoren artean, gainera, nik uste euskaraz irakurtzeko zaletasuna piztu dugula herrian, biharko egunean euskal literatura edota gure egunkariak irakurriko dituzten herritarrek animatu ditugula poliki-poliki. Neurri horretan ere harro egon gaitzeko egindakoaz!

Bi proiektuak aurrera

Aurrera jarraitzeko, oso garrantzitsua izango da egitura egonkorra erabakitzea.

Eskola izatea formula egokia izan da hasieran. Baina beharbada dena birplanteatzeko garaia heldu da, egonkortasuna lortzeko bidean. Proiektuak nola finantziatu, postu klabe batzuk erabaki eta horiek betetzeko pertsona aproposak kontratatu...; horrela maila bat ziurtatuko litzateke, eta aldatetek ez lukete hainbesteko garrantzirik izango.



Txinpartak

Arrasate Press-ek 1988ko abenduaren 2an kaleratu zuen lehenengo zenbakia. 24 orritz osatutako 1.700 ale banatu zituen herrian.

Gaur egun Arrasate Press-ek 7.000 ale banatzen ditu. Bere garian, horietako 700 Bergarara ekartzen ziren.

Ostiral honetan 100. zenbakia kaleratu dute. Zorionak!

Arrasaten astekariari buruz egindako inkestean arabera, dohain izatea baino gehiago jendeak etxeko buzoian jasotzea eskertzen du.

Arrasate Press-en, lau langile ari dira egun osoko lanean; Arrasate Telebistan beste lau. Soldatak Udala, INEM eta Diputazioaren artean ordaintzen dituzte, Lan Sustapenerako programaren barruan.

ATBk 1990eko otsailaren 13an (13 eta astearte) emititu zuen lehenengo aldiz.

Gaur egun, ATBk 10 programa ezberdin ematen ditu astean. Guztira, 17 orduko emisioa.

ATBko saioak astelehen, asteazken eta ostiraletan izaten dira, 8etan. Hurrengo egunean, eguerdian errepikatzen dira emanaldiak.

Siaska

Dena zure
haurarentzako

Pedro Deuna 10, Tfnoa: 76 10 39
BERGARA

HALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILEA
SUKALDERAKO ALTZARIAK


BOLU 24 Tfnoa: 76 30 57
BERGARA

IGERILEKUKO

TABERNA

EGUNEKO MENUA
AURREZ ESKATUTAKO
AFARIAK

Tfnoa: 76 53 55



Sortu: 1983ko urrian eratu zen, Batzar Orokor bat egin eta gero.

Presidentea:

J.M. Mujika Arrieta.

Bazkideak: 610 inguru, hiruhilabetero 1000 pezeta oradaintzen dute, urtean 4000.

Komunikabideak:

ATB (Arrasate Telebisita) eta Arrasate Press astekaria. Urtean sei aldiz, Jazten Euskarari buruzko aldizkaria ateratzen dute.

Liberatuak: Arrasate Press eta ATBn dabilzate-naz gain, egun osoko beste hiru langile.

Helbidea:

Pablo Uranga, 4 behea.
20500 ARRASATE
Telefonoa: 795446.



BEINKE (Aretxabaleta)

Sortu: 1986ko abendu-an egindako Batzar Orokorrean.

Presidentea:

Aitor Sarasua.

Bazkideak: 185 inguru.

Hiru hilabero 600 peztako kuota ordaintzen dute, urtean, 2400.

Komunikabideak:

Aretxagazeta hiru hila-betekarian testuen zuzen-keta lanak egin dituzte. Hemendik aurrera aldizkariaren ardura eurok eramatea proposatu die Udalarri.

Liberatuak: Pertsona bat egun erdira, arratsalde-tan lanean.

Helbidea: Euskal Txokoa Goikaldea, 96 postaku-


Euskara, oi, euskara!

Arrasate Press, ATB, Berrigara, Aretxagazeta..., izen hauek oso ezagunak egiten bazaizkigu ere, komunikabide horien atzean dauden taldeak ez dituzue, seguruen, hainbeste ezagutuko. Arrasateko AED, Bergarako Jardun, Aretxabaletako Beinke, Oñatiko Laixan eta Antzuolako Idolaz, gure bailaran Euskara bultzatzeko sortutako elkarteak dira.

Horrialde hauetan, aipatutako elkarte hauek egiten duten lanari buruzko informazioa emango dugu. Orainarte egindakoaren berri eman eta etorkizunerako proiektuak azaldu.

AED, aintzindari eta eredu

Bailaran, euskara bultzatzeko sortutako elkarte aintzindari dugu Arrasate Euskaldun Dezagun. Zortzi urte badira Arrasaten, euskararen egoeraz kezkatutik, gure hizkuntzaren aldeko mezu baiko-rrak ikusiaz, hala nola, ikastolan gero eta haur gehiago zebilera, eskoletan euskara indarrez sartzen zegoela, herrian pixu garbi bat izango zukeen euskararen inguruko elkarte



Juan Luis Arejolaleiba, AEDko idazkari Orokorra, beti aurrera begira.

bat sortzea erabaki zutela.

Garai hartan Udaletxean ez zegoen Euskara Zerbitzurik, ezta ere Euskara Batzorderik eta Mondrauen zerbait gehiago beharrezkoa zela ikusirik, talde bat eratu zuten eta lanari ekin zioten. Harrezkerotik, AEDk hazkunde prozesu haundia ezagutu du eta urte gutxitan, elkarte honen ihardueren ohiartzunak, batez ere sortu dituen komunikabideei esker, ikaragarri zabaldu dira.

Gaur egun, antolatzen dituen iharduerak lau ataletan banatzen dituzte: **komunikabide saila** (ATB, Arrasate Pess astekariak eta Jazten aldizkariak osatuta); **Kultur iharduerak** (jaialdiak, mahainguruak, hitzaldiak, azokak, bertso saioak, etab....); **Sentsibilizazio iharduerak** (bi taldez osatutako saila: Euskal-lan, lantegietan euskararen alde lan egiteko, eta Kanpo-harreman taldea, euskararen inguruan

erakunde ezberdinek, euskarari ematen dioten tratamendua hobetzen saiatzen den taldea); **laugarren atala, Haurrentzako ekintzak** izango litzateke (Uztailean udaleku irekiak antolatzeaz gain, larunbatero iharduera ugari egiten ditu haurrentzat).

Lan sail bakoitzak bere funtzionamendua dauka eta Zuzendaritza Batzordeak nolabaiteko lotura ematen die.

AEDk etorkizunerako, orain arte egindakoari eutsi eta sendotzea du helburutzat. Batez ere gazteen mundua landu nahi du, 14-20 urte bitartean daudenentzat bideratutako ekimenak antolatuta.

Aretxabaletan, Beinke

1986.eko azaroan eginiko Batzar Orokorrearen ondoren sorturiko elkarte. AED-ko bazkide ziren atxabaltar batzuei, bere herrian euskararen

GIARTZU (M. Isabel Hurtado)

DERMOESTETIKA OSOKO ZENTROA

Laser izpien bidezko errekupe-razioa

Errekupe-razioa elektrikoa


Korrente kapazitatuak

Boni Laskurain 3, Etxabea Tfnoa: 76 35 71 BERGARA

Estetika Tratamenduak

Larruazal garbiketak

Kosmetika Espezializatua



Aretrabalean ere, gogor dihardute lanean Beinke Elkartekoak.

aldeko talde bat eratzea bururatu eta 150 lagun inguru bildu zituzten konbokatutako lehen Asanblada Orokorrean: *"Euskara kaleratzearen beharra ikusten genuen, bai dendetan, zein erakunde publikoetan, hitzegiterakoan eta baita idazterakoan ere"*. Lehen Batzar orokorretik elkarrearen izena irten zen. Ekintza puntualez gain ez zuten asko egin bigarren Batzarrera arte: *"Bigarrenean, gauzak aldatu behar zirela erabaki zen eta, zelabait, lan egiteko taldeka banatu beharra zegoela: Ekintza taldea, haurren taldea, propaganda taldea eta Salhaketata-txaloketa antolatuz ziren"*. Harrezkero, taldeka lan egiten dute, bakoitza bospasei pertsonaz osaturik. Batzar eragile bat ere badago, eta baita egun erdiz talde ezberdinetako koordinatzaile bezala lan egiten duen liberatua ere. Proiektuen artean, orainarte hiru hilabete behin kaleratu den Aretxagazeta aldizkariaren ardura euren hartzea eztabaidatzen ari dira.

Antzuolan, Idolaz


Duela zazpi urtetik hona lanean ari badira ere, beti egon dira Udaletxeko Euskara Batzorde barruan. Horregaitik oraindik ez dago elkarte bezala eraturik eta ez daukate bazkiderik; *"Une hauetan, bailarako beste elkarte batzuetako estatutuak erredutzat hartuz, geureak erredaktatzen gabiltza"*. Iazko uda ostean lokal bat lortu zuten eta ordutik lanean ari dira, sei lagun inguru. Maiatzean herri mailan aurkeztuko dute elkarte, *"konturatu bait gara, herri mailan ez dela inondik inora ezagutzen Idolaz"*.

Laixan, Oñatin lanean

Iaz sasoi hontan Oñatin sortutako elkarte dugu Laixan.

Bere sorreran, Oñatiko egoera soziolinguistikoa kontutan hartuz, lehentasuna zuten hainbat esparrutan helburu batzuk zehaztu zituzten: alde

batetik lantaldeak sortu edo sendotu, baita herriko elkarte eta erakundeekin harremanak estutu, eta azkenik, plangintzak mamitu eta burutu, ahal zen neurrian. Aurten Udalarari egitarau orokorra aurkeztu diote, zortzi miloi pasatxoko aurrekontuko. Bertan, besteak beste, herri komunikabide euskaldunak bultzatzeko egitasmoa agertzen da: hilabete-kari bat kaleratzeko plangintza, Udal Irratian lan egiteko aukera eta telebistaren bidea aztertu. Honez gain, Kultur Ekintzak antolatu, elkarrekin harreman estuak mantendu, tertuliak antolatu eta AEDren Euskal-lan esperientzia Oñatin ere praktikan jartzen saiatu.



Jerardo Elorza, Oñatiko Laixanekoak

Egitasmoan, egun osoan lanean jardungo lukeen liberatu bat kontratatzea aurreikusten zen, koordinatzaile lanak beteko lituzkeena. Udalak ezezkoa eman dio egitarau honi. Nahiz eta noiz behinka eta herriko beste edozein elkarteri ematen zaion bezalako laguntzak eskaintzeko prest agertu, Udalak ez du onartu, Laixan elkarrearen proiektua.



IDOLAZ (Antzuola)

Sortu: Duela zazpi urtetik lanean. Nahiz eta aurten maiatza inguruan Batzar Orokor bat egiteko asmotan dabilzaten.

Presidentea:


Gotzon Iparragirre.

Helbidea:

Guraso Elkartea

Eguzki Auzoa z/g

IDOLAZ Antzuolako euskal elkarte, bailarako zaharrentarikoak bada ere, elkarte bezala baino lan talde bezala funtzionatu du orain arte. Ez ditu bazkiderik, eta presidentea eta batzar zuzentzailea behin-behinekoak dira.



Laixan

LAIXAN (Oñati).

Sortu: 1990.eko Uda-berrian eginiko Batzar Orokorrean.

Presidentea:

Jerardo Elorza.

Bazkideak: 120. Urtean 2000 pezeta ordaintzen dute kuota moduan.

Komunikabideak:

Udalak, LAIXAN elkarre, hilabete-kari bat kaleratzeko aurkeztutako aurrekontua ez du onartu.

Liberatuak: Ez.


Helbidea: J. Moia 20 (Gorritxixi). Oñati.

Telefona: Ez.

Gizonezkoentzako eta mutil gazteentzako moda.

Sasoi honetarako andrazko eta neska gazteentzako moda ere bai.

Orain Irizar 2an gaude, laster Barrenkale 35ean




Zer eritzi duzu bailarako aldizkari euskaldunei buruz ?



Mariasun Zelaia
36 urte. Oñatiarra.

Asko gustatzen zaizkit. Beharrezkoak dira. *Berrigaran* ez naiz asko fijatatu, baina Arrasate press euskara, itxura eta gai aldetik ederto moldatua dago. Egunkariak bete gabe uzten duten hutsunea betetzen dute.



Jose Mari Ganboa
30 urte. Arrasatearra.

Funtzio garrantzitsua betetzen dute, baina beharbada jende gaztea alde batera uzten dute (eta ez dut uste nagusiek ere asko irakurtzen dutenik. 20 urtetik 45era bitarteko jendearentzat egiten dira soilik.



Jon Errasti
33 urte. Eskoriatzarra.

Oso ondo daude. Herri mailako berri eta gaiak tratatzen dituzte, beste komunikabide batzuk egiten ez dutena. Eta euskara lantzeko baliabide interesgarria dira, beste komunikabideetan ere gutxi jorratzen bait da.



Damaso Gallastegi
33 urte. Bergararra.

Ondo iruditzen zaizkit. Pentsatzen dut herri mailako informazioa ematea beharrezkoa dela, eta gainera euskaraz eman behar dela.



Estibaliz Larrinaga
34 urte. Atxabaltarra

Bere funtzioa betetzen dute, nahiz eta heldu eta gazteentzako hutsune bat egon. Interesgarriak dira. Beharbada, batzuetan elkarrizketak herriko euskeran egin beharko litateke...



Gotzon Iparragirre
27 urte. Antzuolarra.

Beharrezkoak dira. Dena den, antzuolar baten ikuspegitik, hain lokalistik izan beharrean, bailara mailako lana egitea proposatuko nuke.

**Beheko
Taberna**

**Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak**

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74



Raizabal
Gozotegia

ARTEKALE 9, Tfnoa: 76 11 83

BIDEKURUTZETA 20/22, Tfnoa: 76 12 19

Kabia

Altzariak

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

ERREKI

ERRETEGIA


TXITXARRO ETA SAIHESKI JANA
ASTEBUKAERETAN

Fraiskoziuri Enparantza

Tfnoa: 76 38 51

BERGARA

Umoreak beti dauka lekua




- Zer moduz joiak ba tornillo negozio hori?
 - Hainbestean ere, hainbestean ere... Tornillo bakoitzeko zentimo bat inguru galtzen juau, baina asko eginaren puruan, ondo irtetzen juau.



- Baina Txomin! Zelan jan dittuk nik emandako piku guztiak heure anaiarekin akordatu gabe?
 - Ez ba, ama. Jaten niharduela

nere anaiarekin akordatzen egon naiz, nik denak jan baino lehen etorriko ote zen!



Bai jauna. Elebitzasuna martxan dagoela. Udan, hondartzarako autobusek irtetzen dute Bergaratik, eta ikus zein iragarki agertu zen *La Vergare-sako* atean:

AUTOBUSES MAÑANA Y TARDE
 AUTOBUSAK BIHAR ETA BERANDU



Semeak amari:

- Ama, itsasoko ura zergatik izaten da hain gazia?
 - Baina ez al dakik itsasoko ura zerk gazitzen duen?
 -Ez.
 -Ezetz? Tira, tira, gezurra jirudik hainbeste denboran eskolan ibili ondoren horrenbeste ez jakitea. Baki-lauak, mutil bakilauak!

EGA HEGAN liburutik hartuak.
 Marrazkiak: JOSU OKINA

anezka

Udaberrirako oihalak eta lenzeria

Espoloia 8, Tfnoa: 76 59 25 BERGARA



Ziripot

Bidekurutzeta, 11 Tfnoa: 76 11 41


Pepelu

Ileapaindegia

Zurradero 2, Behea
 Tfnoa: 76 43 07


ederju

ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK
 Barrenkale 23 Tfnoa: 76 29 65 BERGARA



K.O.N.D.E.
 PANADEROKUA
 Burdiñate 1
 BERGARA

ESPOLON



School of English
 BERGARA

Ibargarai 31, Barrukoplaza.

AZKEN HIRUHILABETEA:
 Oraindik tokia duzu.

Informa zaitetz Udako ikastaro intentsiboetarako

Deitu 10etatik 12.30etara eta 15retatik 16retara
 76 03 53 Tfno.ra.

MEKOLALDE

Taberna

Aste Santuan itxita egongo da ostegunetik asteartera
 Tfnoa: 76 50 18



YAZKI

UME

Irizar 3
Tfnoa: 76 16 54

GAZTE

Ibargarai 8
Tfnoa: 76 54 73

Orain, mutilentzako erropak ere eskaintzen ditugu Ibargarai 8an.